

II.— Ormaetxea jaunak bere lan bat irakurri digu:
Algunas formas pasivas.

III.— Eguskitza jaunak Leizaola jaunaren *Cate-*
cismotik jasotako itz asko dakarzki.

IV.— Aita Intzak eriz erri bildutako itzak irakurri
ditu.

V.— Iztegirako itz berriak sortzen edo apaintzen
jardun degu ta bigaramonerako beste gai batzuek
utzirik, oiturazko otoitzaz amaitu da.

Donostia, Eusko -Ikaskuntzaren gela nagusian, 1934 - ko Joñailaren 25 - an.

Batzar ontan jaun aukeratu dira: Azkue maipuru,
Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intzagrai, Altube, Intza,
Lakonbe, Etxegarai, Elissalde eta Ormaetxea urgaz-
lea. Otoitzez asi da.

I.— Elissalde jaunak Zuberoako euskal-somaketa
(*adivanzas*) batzuek esan dizkigu.

II.— Lakonbe jaunak Rouen-en dauden eskutitzak
irakurri dizkigu.

III.— Aita Intzak itz berri batzuen gaia Iztegirako
dakar. *Melodía - Mística* zelan esan litezken. Ez da
ezer erabaki.

IV.— Azkue jaunak bere *Gipuzkera osotua* irakurri
digu. Irakurri-ta, gerorako beste zerbait utzi du.

V.— Urkijo jaunak, Bähr jaunak bidali dion idazki
bat irakurri digu: *El vasco y el camifico.*

VI.— Itz-berriak Iztegirako.

VII.— Azkue jaunak bere *Gipuzkera osotua* ira-
kurtzen jaraitu du eta otoitzez amaitu da batzaraldia.